

ON-LINE Kongresua 2020
Irisgarritasun unibertsala lortzeko elkarlana:
Negoziazio Egituratua
Urriak 29 eta 30



ZUZENBIDE KOLABORATIBOKO EUSKADIKO EKARTEA irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, 2013ko ekainaren 26an sortua , eta as/a/17773/2013 zenbakiarekin inskribatuta 2013ko irailaren 4an. Hainbat diziplinatako Arabako profesional talde batek sortu zuen eta, bere estatutuen bigarren artikulua araberara, honako hau du helburu:

Justizia ez-konfrontatibo eta kolaboratiboaren kontzeptu berri bat sustatzea da helburua. Hori horrela, lankidetzaz publiko-pribatuari esker, metodo berritzaile alternatiboak sortuko ditu, gizartean gatazkak prebenitzeko, kudeatzeko eta konpontzeko. Horretarako elkarteak zuzenbide kolaboratiboa sustatuko du, berrikuntza eta baketze sozialerako tresna gisa.

NEGOZIAZIO EGITURATUA

Negoziazio egituratua **gatazkak konpontzeko prozesu bat** da, bide judizialek kanpo kokatua, partaideek elkarren aurka ez jardutea bilatzen duena. **Lankidetzan, talde-lanean eta negoziazioan** oinarritzen da. Helburua da desgaitasunen bat duten pertsonen legeek aitortzen dizkien eskubideak behar bezala erabiltzeko aukera izatea, prozesu osoan zehar parte hartuko baitute, akordiora iritsi arte

Prozesuak **honako fase hauek ditu: elkarlanari ekiteko hasierako komunikazioa; prozesuaren arauak** elkarrekin adostea; informazioa partekatzea; inplikaturako alde guztien artean **talde-lana** antolatzea hainbat aditu neutralen laguntzarekin, eta irtenbide berritzaileak eta sormenezkoak denen artean bilatzea.

Metodologia 1990eko hamarkadan sortu zen, Estatu Batuetan. Lainey Feingold abokatu estatubatuarra metodologia hau erabiltzen hasi zen desgaitasunen bat duten **pertsonen irisgarritasun digitalaren eskubidea bermatzea helburu zuten prozesu legaletan**. 30 urte igaro dira honezkerok.

Ordutik, abokatu horrek gatazkak konpontzeko prozesu berri bat sortu du, lankidetzan oinarrituta, diskriminazio-egoeretan eta botere-desorekan aplikatzeko. Izan ere, bere lehen prozesua Bank of Americaren aurkako izan zen, ez baitzuen **kutxazain automatikorik** ikusmen urriko pertsonentzat. Tarte guzti horretan, desgaitasuna duten pertsonen borrokan laguntzeko eta beren eskubideak negoziatzeko erabili du metodologia: **errezeta medikoak, hiriko seinaleak, zinema-aretoetako filmen emanaldiak, on-line jokoak** eta abar eskuragarri izateko. Horrela azaldu du "Structured Negotiation: a Winning Alternative to Lawsuits" liburuan (gure elkartea gaztelaniazko itzulpena prestatzen ari da).

Prozedura judicial baten aurrean, Negoziazio Egituratuak elkarlanerako gonbita egiten du, komunikazio adiskidetsu eta asertibo batean oinarrituta. Ezer baino lehen, **aldeek prozesuaren arauak negoziatzen dituzte**, prozesua eroso eta malgua izan dadin, kasuan kasuko beharrak kontuan hartuz. Hori horrela, komunikazioa zainduko dute, erabiliko duten hizkuntza definitu; konfidentziasuna gorde, eta aldean zailtasunak kontuan izango dituzte, akordioaren garapena bermatzeko. Inplikatu guztiek (informatikariek, desgaitasuna duten pertsonak, gerenteek, abokatuek...) talde-lanean jardungo dute, irtenbiderik onena lortzeko. Akordio batera iritsi arte, hasiera-hasieratik nazioarteko hitzarmenetan, tratatuetan edo legeetan aitortutako eskubideen urraketa publikoki salatu beharrean, **prozesuaren berri ematen dute prentsaurreko edota prentsa-ohar baten bidez**. Laineyk **prozesua ezagutzen ez duten entitateen arteko lankidetzaren bideratzeko metodologia bat** diseinatu du. Kongresuan metodologia hori azaldu eta praktikara eraman nahi dugu.

ADCE Kongresua 2020

Irigarritasun unibertsala lortzeko elkarlana: Negoziazio Egituratua



URRIAK 29 (15'30 – 18'00)

HARRERA

Ramiro González Vicente Arabako diputatu nagusiaren agurra

SARRERA ETA HELBURUAK

Negoziazio Egituratuaren aurrekariak

Kongresuaren helburuak

LANKIDETZA GURE BURUAN HASTEN DA

Bilera talde txikietan

TALDE TXIKIETAN LANDUTAKOIA OSOKO BILKURAN AZALTZEA.

BIO atsedena

ABOKATUAK IZURDEAREN TREBETASUNAK ETA MENTALITATEA APLIKATU BEHAR DITU:

ARAZOAK ETA GATAZKAK NOLA KONPONDU.

ELKARLANAREN MUSKULUA GARATZEN.

Praktika talde txikietan

URRIAK 30 (15'30 – 17'30)

NEGOZIAZIO EGITURATUAREN TREBETASUNAK APLIKATZEA

Kasu baten aurkezpena, analisisa eta ebazpena



KUOTAK

Bazkidea/Ikaslea: 60€ + bez

Itundua: 75€ + bez

Arrunta: 90€ + bez

INSCRIPCIONES: info@derechocolaborativo.es

 945 046 994

COLABORAN:

araba álava
foru aldundia diputación foral


Obra Social "la Caixa"